



www.vitoria-gasteiz.org

Aldi baterako kontratazio-zerrenda sortzeko deialdia

**LC01-2017**  
**ZERBITZUAK, PROGRAMAK ETA JARDUERAK KUDEATZEKO**  
**ERDI MAILAKO TEKNIKARIA**

**1. ariketa**

**TEST-GALDERAK**

1. Ariketak **75** galdera ditu, eta bakoitzean 4 erantzun ematen dira aukeran.
2. Gogoan izan **90 MINUTU** dituzula ariketa egiteko.
3. Zuzeneko puntuazioa emateko formula hau baliatuko da: zuzeneko puntuazioa = asmatutakoen kopurua – (erroreen kopurua x 0,33)
4. Lortzen den zuzeneko puntuaziorik altuena 20,00 punturekin parekatuko da, eta puntuazio horren % 50 izango da ebaketa-puntuazioa (10,00).

Deialdia: 2017/04/08

Eredua:

**D**

**Ez ireki esan arte.**

1.- Administrazio-prozedura. Pertsonak administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak. (**Adieraz ezazu erantzun OKERRA**):

- a) Baliabide elektronikoak erabiltzerakoan laguntza jasotzea administrazio publikoekiko harremanetan.
- b) Norberaren autonomia-erkidegoan Espainiako edozein hizkuntza ofizial erabiltzea.
- c) Administrazio publikoen eta agintarien erantzukizuna eskatzea.
- d) Izaera pertsonaleko datuen babesa, eta bereziki administrazio publikoen fitxategi, sistema eta aplikazioetan jasota dauden datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna.

2.- 7/1985 Legea. Biztanle-kopuru handiko udalerrietan, zeini dagozkio ekonomiaren kudeaketa garatzea, bere eskumeneko gaitan gastuak baimendu eta xedatzea, eta langileen kudeaketa?

- a) Osoko bilkurari.
- b) Alkateari.
- c) Gobernu Batzarrari.
- d) Arlo edo sail bakoitzeko koordinatzaile nagusiei.

3.- 2/2016 Legea. Toki-erakundeen eskumenak. (**Adieraz ezazu erantzun OKERRA**):

- a) Lege edo foru-arau bidez ezartzen diren toki-eskumenak hiru motatakoak izan daitezke: propioak, transferituak edo eskuordetuak.
- b) Udalen autogobernua eskumen propioak emanez bermatzen da, eta, salbuespen gisa soilik, eskumen transferitu edo eskuordetuen bitartez.
- c) Lurralde-izaerako toki-erakundeen eginkizun edo ahalmenak izan daitezke arauemaile edo antolamendukoak, plangintzakoak, programaziokoak, sustapenekoak, kudeaketakoak edo beterazleak.
- d) Pertsona fisikoek bitarteko elektroniko bidez jarri beharko dute harremanetan administrazio publikoekin administrazio-prozedura baten barruko edozein izapide egiteko.

4.- 3/2011 Legea. Sektore publikoko kontratuak. Administrazio publiko batek pertsona natural edo juridiko baten gomendio uzten duenean zerbitzu publiko jakin baten kudeaketa, administrazio horrek zerbitzu hori eskaintzea bere eskumenekotzat hartua duelarik, nola deritza kontratuari?

- a) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua.
- b) Hornidura-kontratua.
- c) Zerbitzu-kontratua.
- d) Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzakontratua.

5.- 8/1989 Legea. Prezio publikoak. (**Adieraz ezazu erantzun OKERRA**):

- a) Halakotzat joko dira zuzenbide publikoko erregimenean ematen diren zerbitzuengatik edo egiten diren jarduerengatik ordaindu beharreko diruzko kontraprestazioak, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek sektore pribatuan ere eskaintzen direlarik administratuek borondatez eskatu baditzakete.
- b) Prezio publikoak zehazterakoan, jarduerak egiteak edo zerbitzuak emateak sortutako kostu ekonomikoak estaltzeko besteko mailara iritsiko dira gehienez.
- c) Prezio publikoak ezartzeko edo aldatzeko proposamen ororekin batera txosten ekonomiko-finantzarioa aurkeztu beharko da, zeinean proposatzen den zenbatekoa eta dagozkien kostuen finantza estalduraren gradua justifikatuko baitira.
- d) Prezioa eskatzea justifikatzen duen zerbitzua ematen hasten denetik eskatu ahalko dira prezio publikoak.

6.- Udal antolakuntza. Zein sailetan dago sartuta Gazteria Zerbitzua?

- a) Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Saila.
- b) Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila.

- c) Partaidetza eta Gizarte Etxeen Saila.
- d) Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saila.

7.- Gizarte Etxeen eta Kirol Instalazioen Araudia. (**Adieraz ezazu erantzun OKERRA**):

- a) Gasteizko Udalak erantzukizun zibilerako aseguru-poliza dauka, gizarte etxe eta kirol instalazio guztietan administrazioaren ondare-erantzukizunarekin lotutako gertaerei aurre egin ahal izateko.
- b) Gizarte etxeak eta kirol instalazioak sarbide publiko eta askeko instalazioak dira berez, aldez aurretik prezio publikoa edo tasaren bat ordaintzea eskatzen duten jarduerak nahiz instalazioak izan ezik.
- c) Segurtasun neurriak direla eta, 10 urtetik beherako haurrak 16 urtetik gorako pertsona batekin sartu beharko dira gizarte etxe eta kirol instalazioetan, haren ardurapean, salbu eta ikastaro edo lantegietan parte hartzera sartzan badira, edo ikastetxe, klub edo talde antolatu batekin batera, jardueraz arduratzen den langileren bat dutelarik.
- d) Oro har debekatu egiten da animaliak gizarte etxe edo kirol instalazioetan sartzea, gidari edo segurtasun zereginak betetzen dituztenak salbu.

8.- Gizarte Etxeen eta Kirol Instalazioen Araudia. Komunikabideek zentroan sartzerik izango dute bertan antolatutako ikuskizun publikoei eta kirol lehiaketei buruz informatzeko, baldintza hauekin:

(**Adieraz ezazu erantzun OKERRA**)

- a) Zentroaren ohiko funtzionamendua ez eragozte, eta zentroa ireki eta ixteko ordutegiari ez eragitea.
- b) Grabazio orokorrak badira, banakoen intimitateari kalterik ez egitea. Bestela, filmatu edo elkarrizketatzekoak diren pertsonen berariazko baimena beharko dute.
- c) Pertsonen segurtasunari nahiz eraikinaren segurtasunari kalte larriak sortzeko moduko gertaerarik tartean ez izatea.
- d) Aldez aurretik baimena izatea.

9.- Gizarte Etxeen eta Kirol Instalazioen Araudia. Instalazioetan Udalarena ez den publizitatea erakustea. Kasu hauetan debekatuta egongo da publizitatea jartzea: (**Adieraz ezazu erantzun OKERRA**)

- a) Publizitateak edari alkoholodunak eta tabakoa kontsumitzera bultzatzea.
- b) Mezuek edo irudiek hizkuntzaren zein irudien erabilera sexistak badakarte.
- c) Irabazteko asmorik ez duen publizitate komertziala bada.
- d) Publizitate euskarrian iragarkia jarri duen entitatearen datuak argi agertzen ez badira.

10.- Genero berdintasuna. Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, hainbat pertsonak osatutako administrazio-organismoetan emakume eta gizonen presentzia orekatua dago sexu baten zein bestearen ordezkartzak gutxienez proportzio hau badu:

- a) % 50.
- b) % 40.
- c) % 33.
- d) % 45.

11.- Genero berdintasuna. Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzua arduratzen da genero-berdintasunaren alorreko udal politika sustatu, koordinatu eta ebaluatzeaz. Genero-berdintasunaren alorrean zenbat plan ezarri dira Udalean?

- a) 1.
- b) 2.
- c) 3.
- d) 4.

12.- Genero berdintasuna. Noiz da Emakumeen Nazioarteko Eguna?

- a) Martxoaren 8an.

- b) Urriaren 15ean.
- c) Azaroaren 25ean.
- d) Ekainaren 28an.

13.- Hezkuntza. Udalaren haur eskoletan zein urte-tarteko umeei ematen zaie arreta?

- a) 0 eta 3 urte bitartekoei.
- b) 0 eta 4 urte bitartekoei.
- c) 0 eta 5 urte bitartekoei.
- d) 0 eta 6 urte bitartekoei.

14.- Hezkuntza. Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzua hiru ataletan banatzen da. (**Adieraz ezazu erantzun OKERRA**):

- a) Haurtzarorako Hezkuntza Atala.
- b) Hezkuntza Ikerketarako Atala.
- c) Hezkuntza Programen Atala.
- d) Hezkuntza Koordinaziorako Atala.

15.- Hezkuntza. Hezkuntza Zerbitzuaren 2014/15 ikasturteko oroitidazkian adierazten denaren arabera, Hezkuntza Zerbitzuak zenbait partaidetza-organo sustatzen eta koordinatzen ditu. (**Adieraz ezazu erantzun OKERRA**):

- a) Udalaren Haur Eskolen Eskola Kontseilua.
- b) Udaleko Eskola Kontseilua.
- c) Udalaren Haur Eskolen Sarearen Eskola Kontseilua.
- d) Partzuergoaren Haurreskolen Sarearen Eskola Kontseilua.

16.- Hezkuntza. Hezkuntza Zerbitzuaren 2014/15 ikasturteko oroitidazkian udalaren haur eskoletan garatzen diren zenbait programa aipatzen dira. Hauetako zein egiten da?

- a) Ingelesa ikasteko programa.
- b) Landareak eta zuhaitzak ezagutzeko programa.
- c) Haur Antzerkia programa, euskara antzerkiaren bidez sustatzeko.
- d) Beste herrialde batzuetako kantuak ezagutzeko programa.

17.- Hezkuntza. Hezkuntza Zerbitzuaren 2014/15 ikasturteko oroitidazkian Hezkuntza Zerbitzuak garatzen duen opor programa aipatzen da. Oporretako jarduera hauetatik zein kudeatzen du Hezkuntza Zerbitzuak?

- a) Zuhatza irlako udalekuak.
- b) Natur parkeetako kanpamenduak.
- c) Hizkuntzak trukatzeko udalekuak.
- d) Jolas txokoak.

18.- Hezkuntza. Hezkuntza Zerbitzuaren 2014/15 ikasturteko oroitidazkian "Guraso eskolak" programa deskribatzen da. Hauek dira programaren helburuak, besteak beste: (**Adieraz ezazu erantzun OKERRA**):

- a) Familiei erabakiak hartzen laguntzea hezkuntzari dagozkion alderdietan.
- b) Familiei lege-aholkularitza ematea hezkuntzari dagozkion alderdietan.
- c) Guraso gisa dituzten erantzukizunez kontzientzia handiagoa har dezaten sustatzea.
- d) Familiak gaitzea seme-alaben hezkuntzarekin lotutako alderdietan.

19.- Hezkuntza. Hezkuntza Zerbitzuaren 2014/15 ikasturteko oroitidazkian Hezkuntza Zerbitzuak bideratzen dituen zenbait hezkuntza-programa deskribatzen dira. Programa hauetatik zein kudeatzen du Hezkuntza Zerbitzuak?

- a) "Ibilbide historiko-artistikoak" programa.
- b) "Zientzian murgiltzen" programa.
- c) Ikasleentzako kirol programa.
- d) Trafiko-istripuen prebentziorako programa.

20.- Hezkuntza. Hezkuntza Zerbitzuaren 2014/15 ikasturteko oroitidazkian adierazten denaren arabera, Hezkuntza Zerbitzuak zenbait lankidetzaz hitzarmen ditu hezkuntza alorreko agenteekin. Hauetako zeinekin?

- a) EHIGE.
- b) DENON ESKOLA.
- c) BIHE.
- d) SAREAN.

21.- Hezkuntza. Hezkuntza Zerbitzuaren 2014/15 ikasturteko oroitidazkian adierazten denaren arabera, Hezkuntza Zerbitzuak ikastetxeetako eskola kontseiluetan hartzen du parte. Lan-helburuen artean hauek daude: (**Adieraz ezazu erantzun OKERRA**):

- a) Ikastetxeen eta Udalaren arteko lotura izatea.
- b) Eskola komunitatearen eskaerei erantzutea.
- c) Lanbide Heziketa bultzatu eta garatzeko partzuergoaren kudeaketaren berri ematea.
- d) Udalari ikastetxeen egoerari buruzko informazioa ematea.

22.- Hezkuntza. Hiri Hezitzaileen Gutunaren arabera, hiri hezitzaile batek hau sustatu behar du: (**Adieraz ezazu erantzun OKERRA**):

- a) Belaunaldien arteko elkarriketa.
- b) Kultu-askatasuna.
- c) Herritarrek hezkuntzan parte hartzea.
- d) Aniztasunean hezteak.

23.- Hezkuntza. Hezkuntza Zerbitzuaren 2014/15 ikasturteko oroitidazkian adierazten denaren arabera, Udalak entitate hau finantzatzeko laguntzen du: (**Adieraz ezazu erantzun OKERRA**):

- a) Lanbide Heziketa bultzatu eta garatzeko partzuergoa.
- b) Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza sustatzeko partzuergoa.
- c) Gasteizko Arte eta Lanbide Eskola fundazioa.
- d) UNED-en Gasteizko zentro elkartuaren partzuergoa.

24.- Hezkuntza. Hezkuntza Zerbitzuaren 2014/15 ikasturteko oroitidazkian adierazten denaren arabera, Hezkuntza Zerbitzuak diru-laguntzen deialdi hauek kudeatzen ditu: (**Adieraz ezazu erantzun OKERRA**)

- a) Guraso elkarlanean diru-laguntzak.
- b) Ikastetxeentzako diru-laguntzak, euskara sustatzeko programak garatu ditzaten.
- c) Hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonen arreta ematen diharduten elkarlanean diru-laguntzak.
- d) Hezkuntza Zerbitzuko hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako diru-laguntzak, ikasleentzako.

25.- Kultura. Noiz eta non garatzen da "Dibertikale" programa?

- a) Uda garaian, gizarte etxeetan.
- b) Uztailera eta abuztuaren artean.
- c) Uztailera, gizarte etxeen inguruko kale, parke eta plazetan.
- a) Urte osoan, gizarte etxeetan.

- 26.- Kultura. “Auzo Eszena” programan parte hartzeko:
- a) Deialdi irekia egiten da, Gasteizko talde eta artista amateurrei zuzendua.
  - b) Taldeek herritarrei laguntzeko edozein bulegotan eman dezakete izena, urtean zehar.
  - c) Ez da beharrezkoa aldeztu aurretik izena ematea.
  - d) Ez dago inolako betekizunik bete beharrik.
- 27.- Kultura. Non egiten da Kontserbatorioaren kontzertu-programa?
- a) Kontserbatorioko areto nagusian.
  - b) Gizarte etxeetako ekitaldi-aretoetan eta antzokietan.
  - c) Gizarte etxeetako ekitaldi-aretoetan eta antzokietan eta “Jesus Guridi” musika kontserbatorioan.
  - d) Bakarrik gizarte etxeetako antzokietan.
- 28.- Kultura. Kulturak kudeatzen dituen jarduerak artistikorako hastapen-ikastaroak:
- a) Hainbat arte-teknikari lehenengoz ekiteko aukera ematen diete herritarrei.
  - b) Geroago Arte eta Lanbide Eskolan sartu ahal izateko prestakuntza eskaintzen diete herritarrei.
  - c) Ezagupenak zabaldu, nor bere gaitasunak garatu eta aisia sormenaren bidez aberasteko helburua dute.
  - d) a) eta c) aukerak zuzenak dira.
- 29.- Kultura. Udalaren kirol instalazioetako abonatuak:
- a) Matrikula-prezioaren % 40ko deskontua dute kultur ikastaroetan.
  - b) Ez dute inolako deskonturik kultur jardueretan.
  - c) Matrikula-prezioaren % 15eko deskontua dute kultur ikastaroetan.
  - d) Ez dute matrikularik ordaindu behar kultur ikastaroetan parte hartzeko.
- 30.- Kultura. Kultur ikastaroak:
- a) Kultur zabalkunde eta prestakuntzako ikastaro praktikoak dira.
  - b) Kultur zabalkunde eta prestakuntzako ikastaroak dira, nagusiki teorikoak, hainbat diziplinari buruzkoak.
  - c) Hainbat arte diziplinari lehenengoz ekiteko ikastaro praktikoak dira.
  - d) Euskal Herriko Unibertsitateak gizarte etxeetan antolatzen dituen ikastaroak dira.
- 31.- Kultura. Gizarte etxeetako Gela Irekiak erabili ahal izateko:
- a) Erabiltzaile txartela eduki behar da, eta horrek edozein gizarte etxetako edozein gela erabiltzea ahalbidetzen du, ikasturte osoan.
  - b) Erabiltzaile txartela eduki behar da, eta horrek txartela eskatu den gizarte etxeko Gela Irekiak erabiltzea ahalbidetzen du, bi ikasturtez.
  - c) Nahikoa da edozein gizarte etxetan izena ematea erabili aurretik.
  - d) Taldean eman behar da izena, herritarrei laguntzeko bulego batean.
- 32.- Kultura. Udalaren Liburutegi Sarea:
- a) Edonor sar daiteke, bazkide izan ala ez, eta zerbitzu hauek baliatu: kontsulta, mailegua, hemeroteca, jarduerak eta liburutegi digitala.
  - b) Bazkide txartela duten pertsonen dokumentuak maileguan hartzeko zerbitzua ematen die.
  - c) Bazkideei baino ez die zerbitzu ematen.
  - d) 14 urtetik beherakoak ezin dira sartu.

- 33.- Kultura. Udalaren web-orritik Liburutegi Sareko funtsen katalogora sar daiteke eta:
- a) Hainbat izapide liburutegira joan beharrik gabe egin daitezke.
  - b) Dokumentuen kontsulta baino ezin da egin.
  - b) Ezin dira dokumentuak erreserbatu.
  - d) Baimentzen ez den funtzio bakarra maileguak berritzearena da.
- 34.- Kultura. Nork eska ditzake gizarte etxeetako erakusketa aretoak?
- a) Artistek, artista taldeek edo arte eta eskulanen zaleek.
  - b) Udal sail eta zerbitzuek.
  - c) Elkarteek, GKEek edo interes publikoko beste entitate batzuek.
  - d) Aurreko guztiak zuzenak dira.
- 35.- Kultura. Helburu hauetatik zein **EZ** da estrategikoa Kultur Ekintzen Atalarentzat?
- a) Herritarren partaidetza sustatzea.
  - b) Udalaren arte ondarea zaintzea, mantentzea eta ezagutaraztea.
  - c) Kultura ludikoaz gozatzea sustatzea.
  - d) Arte diziplina ezberdinetan sormena sustatzea.
- 36.- Kultura. Tokiko egutegiko zein jai ospatzen da urtero data berean?
- a) Ostegun Gizena.
  - b) Olarizu.
  - c) San Anton.
  - d) Inauteri Asteartea.
- 37.- Kultura. Zein helburu EZ da funtsezkotzat jotzen Andre Maria Zuriaren jaiari dagokienez?
- a) Kalitateko programazioa garatzea.
  - b) Kultura ezberdinen arteko bizikidetzaren ahalbidetzea.
  - c) Emakume artisten papera bistaratzea.
  - d) Kultur elkarten itxaropen eta eskaerei erantzutea.
- 38.- Kultura. Andre Maria Zuriaren jaietan, zein espaziok bildu ohi du jende gehien egunero-egunero?
- a) Abentura lekuak.
  - b) Umore txokoak.
  - c) Aihotz plazako kontzertuek.
  - d) Probintzia plazako askotariko ikuskizunek.
- 39.- Kultura. Pertsonaia hauetatik zeintzuk agertzen dira Gasteizko Udalaren Erraldioen Konpartsan?
- a) Arabako Lautadako nekazari bikotea.
  - b) Arrautza-saltzaile bikotea.
  - c) Aramaioko nekazari bikotea.
  - d) Arabako Errioxako nekazari bikotea.
- 40.- Kultura. Artista plastikoentzako lehiaketa hauetatik zein **EZ du** Gasteizko Udaleko Kultura Zerbitzuak **antolatzen**?
- a) Andre Mari Zuriaren Jaiak iragartzeko kartelen lehiaketa.

- b) Floridako jaiotzarako eskultura lehiaketa.
- c) Inauteriak iragartzeko kartelen lehiaketa.
- d) Aire zabaleko pintura lehiaketa.

41.- Kultura. Entitate pribatuek antolatutako kultur ekitaldi hauetatik zeinek ez du hitzarmenik Gasteizko Udaleko Kultura Zerbitzuarekin?

- a) Azkena Rock jaialdiak.
- b) Cortada jaialdiak.
- c) Aitzina Folk jaialdiak.
- d) Periscopiok.

42.- Kultura. **Zein EZ da** KaldeArteren helburua?

- a) Erreferentea izatea ikuskizunen salmenta eta banaketan.
- b) Ohiko antzerkiaz bestelako arte eszeniko motak erakustea.
- c) Kalea kultur zabalkunderako espazioa bihurtzea.
- c) Kalea kultur sorkuntzarako espazioa bihurtzea.

43.- Kultura. Noiz egin ohi da "Kazetaritza, bertatik bertara" kultur programa?

- a) Andre Maria Zuriaren jaien ondoko astean.
- b) Abuztuko azken astean.
- c) Iraileko lehen astean.
- d) Iraileko bigarren astean.

44.- Kultura. Zenbat atal ditu Udalaren Kultura Zerbitzuak?

- a) 5
- b) 6
- c) 7
- d) 8

45.- Kultura. Antzoki hauetatik zein ez dago atxikita Udal Antzoki Sareari, hau da, ohiko programazioa eskaintzen duenari?

- a) Félix Petite antzokia (Ibaiondoko gizarte etxea).
- b) Jesús Ibáñez de Matauco antzokia (Hegoalde gizarte etxea).
- c) Federico García Lorca antzokia (Lakuako gizarte etxea).
- d) Jesús Guridi antzokia (Salburuko gizarte etxea).

46.- Kultura. Hauetatik zein ez da Principal antzokiaren ohiko denboraldietako bat?

- a) Neguko eta udaberriko denboraldia.
- b) Udako denboraldia.
- c) Jaietako denboraldia.
- d) Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.

47.- Kultura. Ohiko programazioko ziklo hauetatik zein ez da Gizarte Etxeetako Antzokien Sarekoa?

- a) Flamenko zikloa.
- b) Musika elektronikoko zikloa.



- c) "Ikuskizuna Ibaiondon" zikloa.
- d) JIM Aktual zikloa.

48.- Kultura. Hauetatik zein ez da Montehermoso kulturunearen jarduera-ildo bat?

- a) Erakusketak.
- b) Falerina lorategiko jarduera-programa.
- c) Kultura eta hezkuntza jarduerak.
- d) Mediateka - dokumentazio zentroa.

49.- Hauetatik zein zerbitzu eskaintzen du Montehermosoko Mediateka-dokumentazio zentroak?

- a) Online eremua.
- b) Erakusketei buruzko dokumentazio-eremua.
- c) Proiektzio eremua.
- d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

50.- Herritarren Partaidetza. Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren zereginak. **(Aukera OKERRA adierazi)**

- a) Partaidetza-organoak zuzentzea.
- b) Inplikaturako eragile ezberdinen artean (politikoak, teknikariak eta elkarteetan bilduta dauden herritarrak zein bildu gabeak) hausnarketa sustatzea partaidetzaren oinarriaren gainean eta hori aplikatzeko irizpideen gainean, politika publikoen osagarri garrantzitsua diren aldetik.
- c) Elkarteetan bildu gabeko herritarren parte-hartzerako bideak areagotzeko aukerak aztertzea.
- d) Elkartei laguntza ematea, informazioa eta prestakuntza eskainiz, eta Zerbitzuari esleitutako baliabideak kudeatuz.

51.- Herritarren Partaidetza. Herritarren partaidetza-organoak dira... **(Aukera OKERRA adierazi)**

- a) Auzoguneak.
- b) Elkarguneak.
- c) Herritarren txanda Udalbatzaren batzordeetan.
- d) Gizarte-kontseilua.

52.- Herritarren Partaidetza. Herritarren partaidetzaren ildo estrategikoak dira... **(Aukera OKERRA adierazi)**

- a) Parte-hartzea udalerriko ardatz estrategiko gisa.
- b) Herritarren partaidetzarako bideak eta tresnak.
- c) Partaidetzaren kultura hobetzea: informazioa, komunikazioa eta prestakuntza.
- d) Herritarren partaidetzaren kantitatea hobetzea.

53.- Kirola. Manuel Cuenca Cabezak, "Ocio humanista" argitalpenean, aisialdia esperientzia komunitarioa den aldetik definitzen du, eta garapen pertsonal eta sozialarekin lotutako ikuspuntu positibo batetik, aisialdi autotelikoaren dimentsioetatik aztertu daitekeena; dimentsio horiek aisialdia bizitzeko modu ezberdinekin eta hainbat eremu, giro, ekipamendu eta baliabiderek ere erlazionatzen dira. Identifika itzazu lau dimentsio horiek:

- a) Dimentsio ludikoa, sortzailea, ingurumenarekin eta ekologiarekin lotutakoa, eta solidarioa.
- b) Dimentsio katartikoa, esperientziala, agonikoa eta solidarioa.
- c) Dimentsio afektiboa, jolas dimentsioa, jai dimentsioa eta solidarioa.

**d) Guztiak okerrak dira.**

54.- Kirol Zerbitzua, bere helburu orokorrak oinarritzat harturik, jarduerak, kanpainak eta zerbitzuak sustatzen ditu, eta elkarreei laguntzen. Adieraz ezazu erantzun zuzena:

- a) Jarduera eskaintza zabala sortzeko, herritar guztiak zer aukeratu izan dezaten.**
- b) Herritarren beharrei erantzuteko gauza izango diren kirol-instalazioen sarea sustatu eta garatzea.**
- c) Aisialdi baliagarriaren kultura sortu eta sustatzea, eta osasun ohiturak sortaraztea.**
- d) Denak dira zuzenak.**

55.- Zein da Kirol Zerbitzuaren xedea?

- a) Proiektu global eta iraunkor baten bidez, entitate pribatuek bultzatzen dituzten ahalik eta kirol ekitaldi gehien hartzea hirian, haiek irabazi ekonomikoak lortu ditzaten.**
- b) Proiektu global eta iraunkor baten bidez, hiriko klubak lehiaketa profesionaletan taldeak dituzten kirol entitateen harrobia izan daitezen lortzea.**
- c) Proiektu global eta iraunkor baten bidez, herritar guztiak, neurrian eta ohikotasunez, jarduera fisikoa praktikatu dezaten lortzea, hain zuzen, ongizate fisiko, psikiko eta soziala ahalbidetuko duena eta ondorioz, osasun ohiturak sortzen eta bizitza kalitatea hobetzen lagunduko duena, bai eta kirolaren berezkoak diren balioetan eta, bizitzaren iturri den aldetik, ingurune naturalarekiko begirunean hezten lagunduko duena ere.**
- d) Guztiak okerrak dira.**

56.- Kirol Zerbitzuak hainbat kirol jarduera-programa sustatzen ditu. Adieraz ezazu erantzun zuzena:

- a) Mantentze fisikoko programa eta dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako jarduera fisiko egokituko programa.**
- b) Mantentze fisikoko programa, kirol hastapenentarako programa, kirol baliagarriaren programa, eta dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako jarduera fisiko egokituko programa.**
- c) Mantentze fisikoko programa, kirol baliagarriaren programa, eta dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako jarduera fisiko egokituko programa.**
- d) Mantentze fisikoko programa, kirol hastapenentarako programa, eta kirol baliagarriaren programa.**

57.- Kirol Zerbitzuak "Kirola, hezteko giro eta bide" izeneko ikastetxeen arteko kirol topaketak antolatzen ditu. Adierazi zein den topaketa horien deskribapen zuzena.

- a) Ikastetxeen arteko topaketak antolatzea kirol anitzetako jarduerak egiteko, larunbat goizetan, azarotik maiatzera arte. Asteazkenean zehar ikastetxeetan kirol jarduerak nahasian edo kirol anitzetako jarduerak egiten dituzten 1 eta 6 urte bitarteko haurrentzat.**
- b) Ikastetxeen arteko topaketak antolatzea kirol anitzetako jarduerak egiteko, asteazkenean zehar, azarotik maiatzera arte. Ikastetxeetan kirol jarduerak nahasian edo kirol anitzetako jarduerak egiten dituzten Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara arteko taldeentzat.**
- c) Ikastetxeen arteko topaketak antolatzea kirol anitzetako jarduerak egiteko, asteazkenean zehar, azarotik maiatzera arte. Ikastetxeetan kirol jarduerak nahasian edo kirol anitzetako jarduerak egiten dituzten 1 eta 6 urte bitarteko haurrentzat.**
- d) Ikastetxeen arteko topaketak antolatzea kirol anitzetako jarduerak egiteko, larunbat goizetan, azarotik maiatzera arte. Asteazkenean zehar ikastetxeetan kirol jarduerak nahasian edo kirol anitzetako jarduerak egiten dituzten Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara arteko taldeentzat.**

58.- Gasteizko udalerriko herrietako kirol kanpaina udalerriko kontzeju elkartearen lankidetzarekin egiten da. Adieraz ezazu erantzun zuzena:

- a) C.D. Alavés.
- b) Hijosdalgo de la Junta de Elorriaga.
- c) C.D. Baskonia.
- d) Arabako Kirol Federazioen Elkartea.

59.- "Kirol bidean" kanpainaren helburua da Gasteizko gazteen artean kirol jarduera sustatzea, hainbat jarduera-konbinazio eskainiz asteburuetan praktikatu ahal izateko. Adierazi adin-tarte zuzena:

- a) 12 eta 18 urte bitartean.
- b) 12 eta 30 urte bitartean.
- c) 18 eta 23 urte bitartean.
- d) 23 eta 30 urte bitartean.

60.- "Adinekoentzako natura ibilaldiak" kanpainaren bidez, Kirol Zerbitzuak adineko pertsoneri zuzendutako jarduera garatu nahi du, mendira eta natura ingurune gertuenera hurbil daitezen, irteera errazak eta haien adinari egokitutako ibilbideak antolatuz. Adierazi zein den gutxieneko adina programatutako irteera horietan parte hartu ahal izateko:

- a) 18 urte.
- b) 31 urte.
- c) 67 urte.
- d) 55 urte.

61.- Udalaren kirol instalazioak erreserbatzeko moduetako bat aldeztu aurretiko erreserba da. Adierazi zein den definizio zuzena:

- a) Aldeztu aurretiko erreserbak kirol espazioen lagapenak dira, eskatzen duen edozein pertsona fisiko edo juridikoren aldekoak, baldin eta eskabidearen ezaugarriak direla eta erreserba zuzenean egiterik ez badago edo denboraldiko erreserbatzat edo federazioen erreserbatzat jotzen ez bada.
- b) Aldeztu aurretiko erreserbak kirol espazioen dohaintzak dira, baliabide ekonomikorik ez duten kirol entitateen aldekoak.
- c) Aldeztu aurretiko erreserbak kirol espazioen lagapenak dira, edozein motatako elkartearen aldekoak, edozein une eta zirkunstantzian, eta nahitaez ordainketa bati lotuta daude.
- d) Denak dira zuzenak.

62.- Udalaren kirol instalazioak erreserbatzeko moduetako bat zuzeneko erreserba da. Adierazi zein den definizio zuzena:

- a) Zuzeneko erreserba da kirol espazio bat okupatzea libre dagoenean.
- b) Zuzeneko erreserbak dira pertsona fisikoek kirol espazioetan egindakoak, gehienez zortzi egun lehenagotik, espazio horiek esku hartze berezirik behar ez badute eta ezartzen diren arauak betez erabiltzen badira. Kirol espazioetan modu partikularrean sartzeko aukera ematen da erreserba mota horren bidez.
- c) Zuzeneko erreserbak dira ikastetxeek (publiko, hitzartu nahiz pribatu) egiten dituztenak, Gorputz Hezkuntzako klaseak emateko.
- d) Guztiak okerrak dira.

63.- Udako kirol kanpainan, udal instalazio batzuk egokitu eta prestatu egiten dira erabiltzaileek uda garaian gehien eskatzen dituzten zerbitzuak emateko. Horretarako, berdeguneak, kanpoko igerilekuak, solariumak eta abar egokitu, osasun eta jatezko zerbitzuak eman eta aire zabaleko jolas eta kirol jarduerak programatzen dira. Adieraz ezazu zein instalazio egokitu eta prestatzen den berariaz horretarako:

- a) Mendizorrotzeko kirol esparrua, Gamarrako parkea eta Garaioko urtegia.
- b) Mendizorrotzeko kirol esparrua, Gamarrako parkea eta Ibaiondoko gizarte etxea.
- c) Mendizorrotzeko kirol esparrua, Gamarrako parkea, Garaioko urtegia eta Landako urtegia.
- d) Mendizorrotzeko kirol esparrua eta Gamarrako parkea.

64.- Udal instalazio hauetako batek EZ du igerileku estalirik. Adieraz ezazu zein den:

- a) Abetxukuko kiroldegia.
- b) Gamarrako parkea.
- c) Salburuko gizarte etxea.
- d) Judimendiko gizarte etxea.

65.- Udalaren kirol instalazioak diseinatzean askotariko kirol espazioak sartzen dira, modalitate ezberdinetan jardun ahal izateko. Kirol-instalazio hauetako batek kirol espazio BAKARRA du. Zein da?

- a) Arriagako kiroldegia.
- b) Lakua-03ko gizarte etxea.
- c) Astronomo kaleko trinketa.
- d) Abetxukuko frontoia.

66.- Egunero kirol esparruetan sartzeko bidea erraztearren, Gasteizko Udalak urteko kuota jakin bat ordaintzeko aukera ematen du, instalazioak nahi beste erabili ahal izateko (urteko abonamendua). Kirol instalazioen urteko abonamenduak abantaila handiak eskaintzen ditu. Adieraz ezazu erantzun zuzena:

- a) Sarbide librea sareko igerileku estalietara eta Gamarrako parkera (udako denboraldian).
- b) Sarbide librea sareko igerileku estalietara, Gamarrako parkera (udako denboraldian), Mendizorrotzeko kirol esparrura, eta izotz-pistako saio publikoetara.
- c) Sarbide librea sareko igerileku estalietara, Gamarrako parkera (udako denboraldian), Mendizorrotzeko kirol esparrura eta izotz-pistako saio publikoetara, eta instalazioen erreserban instalazioetan sartzegatik ordaintzetik salbustea.
- d) Sarbide librea sareko igerileku estalietara, Gamarrako parkera (udako denboraldian), Mendizorrotzeko kirol esparrura eta izotz-pistako saio publikoetara; instalazioen erreserban instalazioetan sartzegatik ordaintzetik salbustea, eta udal jardueretan deskontuak izatea.

67.- Gasteizko Udalak futbol modalitate ezberdinetan aritzeko udal instalazioen sare zabala kudeatzen du. Adierazi udal instalazio hauetako zeinek EZ duen futbol-zelairik:

- a) Olanbeto instalazioek.
- b) San Martineko kanpoaldeko instalazioek.
- c) Jarduera Fisiko Egokiturako Zentroak.
- d) Adurtzabalek.

68.- Non dago kokatuta Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoa (OMIJ)?

- a) Florida parkean.
- b) Espainia plazan.
- c) Landatxoko gizarte etxean.
- d) Olagibel kalean.

69.- Gazteria Zerbitzuak hiriko gazteei hizkuntzak praktikatu eta hobetzeko aukera ematen dien baliabide bat eskaintzen du Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan. Zein izen du?

- a) Hizkuntza-kluba.
- b) Gazte Topaketa.
- c) Gazte Factory.
- d) Erasmus +.

70.- Gazte Informatzaileen Sarea izeneko programak gazteentzat interesgarria den informazioa informazio-leku ezberdinetan deszentralizatzen du, gazteak berak bitarteko direla. Leku horiek hainbat baliabide erabiltzen dituzte. Ondoko zerrendan aipatzen direnetatik bakarra dago guzti-guztietan. Zein?

- a) Informazio taula.
- b) Plasma pantaila.
- c) Snapchat kontua.
- d) Erabilera publikoko ordenagailua, Interneterako sarbidea duena.

71.- Gazteentzako Aholkularitza Juridikoa Gazteria Zerbitzuaren programa da, adin-tarte honetako gazteei zuzendua:

- a) 12 eta 29 urte bitartekoak.
- b) 14 eta 30 urte bitartekoak.
- c) 16 eta 30 urte bitartekoak.
- d) 16 eta 35 urte bitartekoak.

72.- Udalaren IV. Gazte Planean gazteriaren alorreko udal politikaren ildoak eta jarduerak jasotzen dira, urte hauetarako:

- a) 2017-2019.
- b) 2014-2016.
- c) 2016-2020.
- d) 2014-2020.

73.- Zein izen du berariaz 12 eta 18 urte bitarteko pertsonen zuzendutako aisialdirako jardueren udal programak?

- a) Haziak.
- b) Xtraclub.
- c) Gauekoak.
- d) Gazte Klik klak.

74.- Zein izen du gazteak parte-hartzearen alorrean hezteko Gazteria Zerbitzuak duen programak?

- a) Gazte Hitzak.
- b) Hiretu Hiria.
- c) Gaztegunea.
- d) Gazte kluba.

75.- Udalaren IV. Gazte Planaren 1. ildoak esparru hauetan esku hartzeko proposamenak biltzen ditu:

- a) Sorkuntza eta bizikidetzak.
- b) Aisia eta denbora librearen.
- c) Enplegua eta etxebizitza.
- d) Osasuna eta gizarte ekintza.

